

ABERRI ARROTZA

Dioni Aguerre, 15 urte

Bidarrai

I. Kapitulu

Oya, hamabost urteko neska gaztea, ttipititik Alemanian bizi zen, Francfort hiriko auzo zahar batean, zehazkiago.

Hamabi estaietako eraikuntza batetako bedera-tzigarrenean zen bere burasoen apartamendu hertsia.

Derya bere ahizpa ttipiarekin egunero kolegio zahar batetara joaten zen, bere amak garbiketak eginez irabazten zuen diruari esker. Eskolatik sartzen zenean, berehala bere amaren laguntzera joaten zen diru pixka bat gehiago irabazteko.

Turkiatik, horien sorterritik, etorri zirenetik, Osmanek, Oyaren aitak, ez zuen zinez lan onik aurkitu. Usu hilabete edo aste batzuk irauten zituzten lan ttipi batzuk egin zituen, bere eraikuntzetako garbiketak egin, jendeen zapetak garbitu... bezala; baina, ez zuen sekulan betidanik amesten zuen lana praktikatu ahal izan. Izan ere, medikuntzan aritzeko etorria zen Alemaniarat.

Maiatzeko egun bero batez, eskolatik sartzen zela Peter bere lagunarekin momentu goxo bat pasa ondoren, Oyak bere ama etxean aurkitu zuen senarrarekin hizketan. Hau oso bitxia atzeman zuen, usaian, tenore horretan, bere ama garbiketant egiten ari zelako auzoko emazte zahar baten etxean. Gurasoak jarriak ziren gelarat sartu zelarik, berehala bere ama zutitu zen, eta, irri handi batekin bisaian, bere alabari erran zion:

“Ohartzen zara Oya? Sei asteren buruan Istanbulen izanen gara, eta aldi honetan, Jainkoak nahi baldin badu, han egoiteko! Kontent zara?”

Oyaren bihotzeko taupadak pixkanaka azkartzen hasi ziren. Ezin zuen gehiago hitz bat atera. Bere burutik mila galdera pasatzen zitzaizkion: “Zer kondatzen du? Ezin gara betirako Turkiara joan! Zer bilakatuko naiz? Zer eginen dut han? Zenbat denbora egonen naiz han? Nola itzuliko naiz Alemaniarat? Nola lortuko dut baimena?”

Pentsamendua iluntzen hasi zitzaion: “Beraz, oraingoan gure aldi da. Urte batzuk lehenago joaten ikusi nituen Nurcan-en familia, eta gero Ayserena. Nork pentsatuko zuen hurrengoak gu izanen ginela! Alta, usnatu behar nuen! Bazuen hilabeteak aitak gure herrirako itzulera aipatzen zuela. Iduriz, Gobernuarengandik diru-kopuru handi bat errezebitzen zuten beren herritar itzultzen ziren guztiek. Hala ere, ez nuen uste nire aitak kontratu hori izenpetuko zuenik. Ez ahal du guregan pentsatzen? Nola amaituko ditut erizain bilakatzeko segitu nahi nituen ikasketak? Nola biziko naiz

Turkian, nire lagun guztiak Alemanian geldituko direlarik? Argi da Nurcan eta Ayse-rekin bezala pasako dela: hastapenean ahal bezainbat idatziko diogu elkarri, baina asteak pasa arau, gure harremanak ttipitzen hasiko dira eta momentu baten buruan ez dut gehiago batere haien berririk ukan-go. Nork daki Peter noiz ikusiko dudan berriz? Hain aspalditik itxoiten nuen gure harremanak momentuan ditugun bezain onak izaita! Segur naiz honekin ere besteekin bezala pasatuko dela, eta momentu baten buruan ez didala gehiago idatziko”.

Ondoko asteak izigarri fite pasa ziren. Ordu arte Turkian pasatako bakantzak oso atseginak izan ziren familia guztiarentzat: eguzkia, itsasoa, bestak eta apairuak egun guziz ... baina, aldi guziz bazekiten berriz etxera itzuliko zirela. Hor, aldiz, betirako joaten ziren eta Oya arrunt jakinean zen ez zela batere berdin pasako.

Diru pixka baten irabazteko, ama-alabek eguneroko garbiketak segitu zituzten bost astez. Azken astean aldiz, etxean gelditu ziren prestakuntza guztiak egiteko gisan.

Egun batez, iduritzen zitzaionez aita aski umore onean zuela, neska gazteak honi eskatu zion:

“Aita, nola segituko ditut nire ikasketak Turkian izanen garenean?”

– Zoin ikasketa? Moztu zuen Osman-ek, zer uste duzu zuk, emazteak ez dira eskolarat joaten Turkian. Askiz luza izan zara kolegioan. Orain, garbitzaile on bat bilakatu behar zara etxeko andere

errespetagarri bat izateko, eta hortan badituzu oraindik antzinamenduak egiteko. Gure herriko ohitura guztiak ahantzi dituzula ohartu naiz.

– Baina aita, badakizu biziki ongi, betidanik erizain izan nahi dudala. Hori da nire ametsa!

– Oya, errealitatea begiratu behar duzu. Emazte erizainek ez dute gerorik Turkian. Amets hau hemen utzi beharko duzu, beste hainbat gauza bezala”.

Eta hortan gelditu zen elkarrizketa. Alabaren kontsolatzeko, amak hitz eman zion egun batez gai hau berriz aipatuko ziola bere senarrari. Gertaera handi hori izan zen neska tristetu zuen lehen eztabaida handia. Nahiz eta errealitatean, zaku oro prestatu-rik, familia guztia puntuan izan abiatzeko egunarentzat, psikologikoki Oya ez zen batere prest bere sorterri, eta bere aberrizat zuen Alemania uzteko. Ez zekien oraindik beste gertakari frangok itxoiten zutela, han bere aitaren herrian.

Abiatzeko tenorea biharamunean zenez, arrats hartan familia osoa goiz oheratu zen. Baina, denek buruan ideia berdina zuten: oren batzuen buruan Turkiarantz airatuko zen hegazkinean izanen zirela, eta, ondorioz, zailtasun handiak ukan zituzten lokartzeko. Hala ere, nehork ez zuen egoera molde berean ikusten. Burasoek poz handia senditzen zuten beren herrirat itzuliko zirelako, eta han utzia zuten familia guztiarekin berriz elkartuko baitziren. Derya aski zainetan zen abentura berri horrek ipiztatzen zuelako. Izan ere, ez zuen Oya-ren adina eta ez zen hura bezain bat ohartzen

errealitatean nola pasatuko zen. Alaba zaharrenak urradura bat senditzen zuen bihotzean, jasan ezina zitzaion, oso garrantzia handia emaiten zion lagunak Alemanian utzi beharko zituelako ideiak.

Sentimendu hau bikoiztu zitzaion neska gaixoari, biharamunean zazpi orenetan aireporturat heldu zirenean. Lagun eta auzo guztiak horien agurtzerat etorriak ziren. Oya berehala Conny, ttipidanik eza gutzen zuen adixkidea, eta Peter, bere mutiko lagunarengana joan zen, azken sei asteetan barnean atxikitzen zuen nigarra iheskor zela senditzen zuela. Hirurak elkarri lotu eta beren indar guztiez tinkatu ziren bazakitelako, beharbada, haien azken besarkada izanen zela. Momentu luze batez hola gelditu ziren, eta Oya-ri iduritu zitzaion nehork ez zituela sekulan bereizten ahalko. Ez zuen ulertzen nola bere burasoek hori egiten ahal zien, ez zuen onartu nahi hirurek hain aspalditik lotzen zituzten kate azkarrak urratu beharko zituztela.

Baina, ikusiz segidan bi herrien eta bi bizimoldeen arteko pasaia eginen zuen hegazkin madarikatuan igon behar zirela, fite-fite Conny eta Peter-ek beren zakuetatik opari bana atera zuten eta Oya-ri agindu zioten bakarrik izanen zelarik idekitzeko. Neska gaixoak ez zuen momentu txar horretan hitz bat atera ahal izan nigarrek eta bihotz-hunkidurak abotsaren bidea hesten bazioten bezala. Orduan, isiltasunak agurrak ito zituen.

Familia hegazkinerantz abiatzen zela, Osman azken aldikotz lagunei buruz itzuli eta hitz hauek atera zituen:

“Alemania agur betirako!”

Ordu erdi bat airean zirelarik, Oya ohartu zen aita lo zuela, gibelean jarria zuen ama irakurtzen ari zela, eta Dery-a komunetara joana zela. Orduan, bakarrik zelako, erabaki zuen lagunek eskainitako paketeen idekitzea. Segidan Conny-renarekin hasi zen eta papera idekitzean, gutun eder bat eta bi adiskideen argazki bat edukitzen zuen koadro bat aurkitu zituen. Peter-ek, aldiz, urre koloreko lepoko bat eskaini zion Oya-k berehala soinean ezarri zuena. Lepoan zuelarik, bere izenaren hiru letrak agertzen ziren dilindan. Katea mehe batek elkar lotuak atxikitzen zituen hiru letra, hiru lagunak oraindik lotuak zirela seinale. Peter-ek erakutsi nahi zion nahiz eta fisikoki bata bestearen oso urrunduak izan, bihotzean zutena nehork ez ziela kentzen ahalko. Orduan, neskak erabaki zuen ez zuela sekulan nehor utziko lepoko eder horren hunkitzen, nehork ez zuela sekulan hirurak lotzen zituen katea mehe hori hautsiko.

Gutti gora-behera hiru oren berantago, azkenean, hegazkina Istanbulerako lurretan pausatu zen. Osman-ek dena behar bezala prestatua zuenez, hogei minututan beren familiaren auzorat heldu ziren. Oraindik goiz zenez, hotz handia egiten zuen Turkiako hiri handian. Yesilkoy aireportutik zetorren taxia ikusterakoan, segidan denek ulertu zuten azkenean helduak zirela francfortarrak. Beraz, hamarnaka pertsona karrikarat atera ziren. Zer ongi etorria! Osmanen anai-arreba guztiek nigarra begietan zuten hain aspalditik ikusia ez

zuten anaia besarkatzean. Oya harriturik gelditu zen ikustean duela hamar urte ikusi ez zuen lehen-gusua zenbat aldatu zen. Izan ere, lau urte lehenago herri horretarat etorri zirelarik bakantzak pasatzerat, azken hau ez zuten ikusi ahal izan.

Egun guztian ehun bat pertsona agurtu ondoren, gehienak Oya-k sekulan ikusi ez zituenak, azkenean familia Osmanen burasoen etxerat joan zen pixka bat pausatzera. Lehen egunetik beren etxe berrirat joan beharrak ziren, baina, arazo ttipi bat izan zen hau alokatzen zutenak ez zirelaketz oraindik joanak. Elgar ez ontsa aditze horrek has-tapen batean ikaragarritzko haserrea piztu zion Osmani. Izan ere, bazuen hogeita bost urte espero zuela momentu hori, eta azkenean, gertatzen zelarik, “karrikan” lo egin behar zuten, hark erraiten zuen bezala. Hala ere, familiak kalmaraztea lortu zuen, eta gau hartan bi nesken aitaxi-amatxien etxean egon ziren.

* * *

II. Kapituluia

Biharamun goizean, Turkiako eguzkiaren diridirek zerua horitzen hasten zutela, Alemanian bost pertsona onartuko lituzkeen Husnu Ottoren autoan metatu ziren denak. Husnu, Shurin (bere emaztea), horien Ahmet semea, eta Osmanen amarekin, laurak toki saindu baterantz abiatu ziren. Iduriz, arruntan zen hiri haundi horretan hola garraiatzea.

Istanbuleko mezkita nagusirat heldu zirenean, leku saindu batetan zirenez, Koranak dioen bezala, Oya-ren amak bere bi alabei hango emazte guztiek eramaten zuten buruko zapi bana eman zien.

Eraikuntzaren ondoan burasoek ardi bat sakrifikatu zuten Allah-ri eskainiz. Horrela, jainkoa eskertzen zuten beren itzulera urosagatik.

Kanita lidiak larruan zilo fin luze bat ideki zuen. Odola iturri batetik ura ateratzen zen bezala isurtzen zen lurrerat, eta fite kabalaren ondoan putzu gorri bat sortu zen. Lazgarria egundaino sekulan abererik hiltzen ikusi ez zuten bi neska gazteentzat.

Gertakizun horrek pena eman zien neskei, bereziki ikusi zutelarik beren aitak nola ardiari lepoa moztu zion. Ez zituzten oraino ontsa ezagutzen musulman erlijioaren ohidurak.

Zeremoniaren bukaeran, Oya-ren amatxik ez zuenez bere neska ttipiaren jokamoldea oso gustukoa, abots xuki batez hau erran zion:

“Oya, ez zara ahatge? Espero dut soinean dituzun zozokeriak kenduko dituzula. Erakutsiko dizut nik nola jantzi behar diren hemengo emazteak”.

Nahiz eta bere amak abisatua zuen amatxi oso zorrotza zela, ohar horrek Oya ustekabean harrapatu zuen. Bazekien bere aitaren amak ez zituela jasaten emazte modernoak. Beretzat gizonen errespetatzeko, etxeko andere on baten izaiteko, senarrak erraiten zuen guztia egin behar zen, gorputz guztia estali behar zen bezala. Horrez gain, ez zituen maite beste herrietatik heldu ziren aldaketak, beretzat ohiturak, ohiturak ziren eta puntuu.

Beren senarren, erlijioaren eta herriko ohituren menpe ziren emazte horietariko bat zen.

Bere hitzak entzuterakoan, Oya-k bere burua aztertu zuen. Kolorea galdua zuen “jean” bat bazuen belauen azpi arte iristen zitzaiona, eta anitz kolorezko kamiseta hertsi bat.

Fisikoki, Oya aski handia zen, bere bi makilen itxura zuten zango luzeei esker. Argala izanik ere, forma ederrak zituen eta bere begiek xarma handia ematen zioten. Gainera, beltzarana zenez, hauek ontsa agertzen ziren eta karrikan pasatzen zelarik bere begi dirdiratsuak ziren haren gainean ikusten zen lehen gauza.

Neskari erantzuteko denborarik utzi gabe, adineko emazteak segitu zuen:

“Eta Derya! Neska ttipiek ez dituzte galtzamotzak eramaten Turkian, ez Istanbulen ere. Zer pentsatuko dute auzokoek!”.

Aldi horretan neskek ez zuten batere amatxiri kasurik egin, eta usatuko zela pentsatu zuten. Baina emazteak ez zituen bakean utzi etxerat sartu eta horien ganbararat joaterakoan, segidan garra-sika hasi baitzen:

“Zer ari da beltz hori erdi biluzirik nire etxeko murru batetan! Familia honen ohorea zikintzen ari zarete zuen zozokeriekin!”

Garrasiak entzuterakoan, ama beste hirurak ziren gelarat joan zen eta lehen aldikotz senarraren ama bezala egin zuen bere alaben aurka ezarritz. Hori ikustean Oya-k kolpe azkar bat senditu zuen bere baitan. Sekulan bere ama ez zitzaion

hola mintzatu. Beti saiatu zen ahal zuena egiten bere alabak hobekien bizitzeko, baina aldi horretan haien kontra joan zen. Gelditzen zitzaizkion esperantza bakarrak peko zolarat erortzen senditu zituen. Bazekien beren amaren sustengua gabe ez zutela ezer lortuko. Besteen errana aplikatu behar-ko zuten ezer erran gabe.

Gainera, beti kexaturik, amatxik bi nesken zakuak ideki zituen baztertuz ordutik goiti janzen ahalko zituzten besteak, emaiten ahalko ez zituztenetarik. Ikusiz ez zela gehiago anitz gauza gelditzen, erabaki zuen bi egunen buruan Istanbulerako merkaturat joanen zirela Turkiako egiazko jantzien erostera. Oya-ren beldurrei erantzunez, honen amak ez zuen deus erantzun eta merkatuaren ondotik bi neskek musulman emazteen itxurarekin bukatu zuten.

Oya-ren ordutegia oso monotonoa zen etxean. Jeiki ondoren, segidan gosaria prestatu, jantziak lisatu, bazkaria prestatu, baxerak garbitu, Istanbulerako karriketako jende ikaragarria gainditu erosketen egitera joateko, Derya zaindu ... Baina, udako oporren amaiera heldu zenez, eta iduritzen baitzitzaion haren aitak ez zuela batere eskolan pentsatzen, Oya-k erabaki zuen bere baitatik izena emanen zuela Istanbulerako eskola aleman batetan.

Maleruski, horren lortzeko ahal zuena eginik ere, eskolak ez zuen bere izena atxiki, erranez ez zuela gehiago tokirik Alemaniatik heldu ziren turkiarrentzat. Aste batzuk lehenago, Ahmet-ekin gai hori aipatzerakoan, azken honek abisatua zuen maila

sozial azkar bat ukan behar zela horrelako eskola batzuetan onartua izateko, beraz, Oya-k bazekien eskolak emaniko aitzakia arrunt faltsua zela.

Hori jakinik, Osman-ek Oya eta Derya Istanbulleko karrika zahar batetako neska-eskola batetan sartu zituen, pentsatu gabe ere sobera zaila izanzen zela bere alabentzat, oraindik tutik menperatzen ez zuten hizkuntza batetan ikastea. Aldi horretan ere ez gaixoez ez zuten hitzik erran ahal izan.

Aste bat berantago, sartzea baitzen, bi ahizpak, aginduzko uniformeak jantzi eta, eskolarat joan ziren, pixka bat urduri eguna nola pasatuko zuten pentsatuz.

Eskolak ez zuen batere Alemaniako kolegio modernoaren antzik. Ehunka neska baziren korridore hertsia guztietan. Gela guztiek ber itxura zuten: nahiz eta ttipiak izan, berrogeita hamar bat mahai metatuak ziren hauetariko bakoitzean. Berina ttipi batek sala osoaren argitasuna ekartzen zuen. Horregatik, hori zenez aire iturri bakarra, egunero oren batetik goiti ikaragarrizko beroa egiten zuen.

Erakasle hotz batek ahizpa bakoitza bere gelara eramane zuen, bakarrik ez zutelako bidea atzemane. Mahai bat hautatu eta, beste ikasle guztiak bezala, Oya bere tokian jarri zen.

Kolpez, gizon bat sartu zen, gela guztia zutitu zen alemanari harridura handi bat sortuz. Denek elgarrekin egun on erran ondoren, gizonak jartzea agindu zuen, eta segidan turkieraz eskolako lege, ordu eta beste anitz gauzaz mintzatzen hasi zen.

Oya-k oren oso bat iraun zuen mintzaldi horretan, ez zuen deus ulertu, gizon hori bere gelako arduraduna zela ezik. Denbora pasatzeko, bere ikaskideak behatu zituen.

Lehen egun horretan, beste sei kurtso ukan zituen, denak lehena bezain gaizki iragan zirenak.

Egunaren bukaeran, etxerat sartzeko tenorea zela, ahizpa handiak Derya nigarrez aurkitu zuen bera bezain egun txarra pasatu zuelako.

Biharamunean, bi ahizpak berriz eskolarat joan ziren, baina aldi honetan gogo txarrez eta pixka bat beldurturik.

Bezperan bezala, bakoitza bere gelara joan zen eta Oya segidan bere tokian jarri zen.

Maisua sartu zelarik, ulertua zuelako, Oya besteak bezala zutitu zen eta egun on erran zion. Horrera arte dena ongi pasatu zen, baina arazoak sortu zitzaizkion maisua abots azkar batekin zenbaki batzuen erraiten hasi zelarik. Izan ere, deia egi-ten ari zen neska bakoitza bere zenbakiaz deituz. Baina, Oya-k ez zuenez ezer ulertzen, erakasleak haren zenbakia oihukatu zuelarik, nehork ez zuen besoa altxatu.

“911?”.

Beharrik maisuak fite ulertu zuen atzerritar bat bazuela bere kurtsoan, turkiera ez zuena ulertzen. Hala ere, besteak bezala tratatu zuen, eta bere ondora joanez, aleman txar batekin galdegin zion:

“Zein da zure izena? Nondik heldu zara? Zergatik ez zara mugitzen deitzen zaitudalarik?”

– Oya Topal deitzen naiz...

– Zutitzen zara niri mintzo zatzaizkidanean!
Kexatu zitzaion. Nondik heldu zara?

Oya oraingoan altxatu zen eta erantzun zion:

– Francfort-Sur-le-Main-etik heldu naiz.

– Non da hori?

– Alemanian.

– Zoin eskolatarat joaten zinen?

– Ez dakit nola erraten duzuen turkieraz.
Alemanez “Hauptschule” deitzen dute.

– Haup...?”

Oya kolpez itzuli zen entzutean bera baino bi
lerro gibelago zen neska bat bere eskolaren izena
errepikatzen.

Honek eskua altxatu zuen eta maisuak galdegin
zion:

– “Nor zara zu?

– Sevim Burak, 915 numeroa dut. Ni ere
Alemaniatik heldu naiz. “Hauptschule” bederatzi
urte irauten duen eskola bat da. Biltzen ditu
hemengo lehen maila eta kolegioa.

– Ontsa, Sevim, segitu zuen erakasleak abots
eztiago batez.”

Gero, berriz Oya-ri buruz itzuli zen eta agindu
zion berriz jartzea. Beraz, bere gela hertsiko beste
berrogeita bost ikasleak bezala bere tokian jarri
zen.

Nahiz eta erakaslea ez oso goxoa izan berarekin,
Oya-ri berdin zitzaion zeren eta bazekien bere
gelan bera bezalako neska bat bazela eta espero
zuen honen ezagutza eginen zuela.

Beraz, egunaren bukaeran, segidan Sevimengana joan zen zinez honekin harremanen sortzeko asmoz. Oren laurden bat elgarrekin pasatu ondoren, biak ohartu ziren anitz pundu amankomun zituztela. Sevimi istorio bera gertatu zitzaion hiru urte lehenago, baina gazteagoa zenez, errazkiago onartu zuen bere egoera berria. Ikusiz ondoan bizi zirela, erabaki zuten arratsean berean Sevim Oyaren etxerat etorriko zela. Gero, bi ahizpak etxerat sartu ziren, eta lehen aldikotz elgarrekin anitz irri egin zuten. Izan ere, Oya ez zen sekulan hain uros izan Turkiarat etorri zirenez geroztik.

Iraileko egun bero eta pizu batez, eguzki dirdiratsuak Istanbulerako paretatik txuri guziak jotzen zituztela jendeen bista itsutuz, bi hilabete Turkiaratua zen familia, azkenean, bere etxe berriaren bisitatzerat joan zen. Ordura arte, beti Osmanen burasoen etxean egon ziren, alokatzaileekin zuten arazoak anitz denbora eman baitzuen konpontzeko.

Bere amatxirengandik urrunago biziko zirela pentsatzeak Oya-ri poza emaiten zion, bien arteko harremanak ez baitziren izpirik hobetu. Emazte zaharrak ahal zuena egin zuen bere haur ttipia arrunt emazte musulmana bilakatzeko.

Kanpotik ikusiz, lehen begiradan, etxeak biziki xarmanta zirudien, eta inpresio horrek Oya umore onean jarri zuen. Azkenean beren etxea ukanen zuten, bi hilabete luze horiek amatxi tzarraren etxean pasa ondoren.

Baina, barnera sartu zirelarik, Oya-k kanita kolpe bat senditu zuen bere sabelean, hain gutizia-

tu etxea, usain higuinarriko zikinontzi bat beste-rik ez zelako.

Pixka bat zahartutako goxoki bat bezala zen. Honetan estalgi koloretsu batek barneko produktu ustelak gordetzen ditu, eta etxe horrek inpresio hori emaiten zuen.

Etxe osoan paretak hezetasunaren ondorioz sor-
tutako ondoz beteak ziren, eta urrundik ikusiz
marroin kolore itsusi bat emaiten zien.

Iduriz, dena berdin zen Turkian. Kanpotik herri
oso polit baten itxura zuen, baina barna begiraturaz
errealitatearen alde itsusiak ikusten ziren.

Barnebidetuen nagusiaren bukaeran saloin ttipi bat
bazen izkin guztietan errauts-metekin. Erdian, zila-
tutako bi besaulki zahar baziren poza haundia
eman zieten Osmani, Turkiako etxeetan biziki
arraroa baitzen muble horien edukitzea. Ezkerral-
deko ate baten gibelean, pareta horixkadun sukal-
de bat bazen. Armario guztiak olioizko geruza batez
estaliak ziren eta askako zilotik armiarmak ateraz-
ten ikusten ziren. Oya-k oso bitxia atxemaiten
zuen gutti arte bizitua izan zen eremu hori hain
egoera txarrean izaita. Bat-batean atera zitzaion:

“Aita, zenbat denbora egonen gara hemen?”

Osmanek ulertzean bere alabak zer erran nahi
zuen, berehala ihardetsi zion:

– Oya utzi plainitzeari pixka bat. Ez zara ohar-
tzen zer santza dugun holako etxe haundi baten
ukaitea gu laurentzat bakarrik. Gainera, justu
ondoan sala bikain bat bada eta azkenean nire sal-
tegia idekitzen ahalko dut arazorik gabe.”

Hilabete batzuk berantago, Oya ikastolako lanen egiten ari zela, bere amak galdetu zion:

“Oya, zertan zara eskolan? Lagun berriak egin dituzu? Hobeki pasatzen da zure erakasleekin?”

Harriturik, eta aldi berean biziki kontent ama bere eskolako arazoez arranguratzten zela, Oya-k bere sentimendu guztiak azaldu zizkion.

Eskolan deus ez zen hobetu. Oya ikaratua zen pentsatzen zuelarik urte bukaeran lortuko zuen ebaluaketa fitxan. Izan ere, aleman kurtsoetako emaitzak ere oso txarrak zituen.

“Alemanian egon bagina, erran zion bere amari, ez nituen arazo horiek ukanen. Irakurri dut egunkari batean anitz turkiarrek amesten dutela berriz joatea eta lerrokatzen direla Alemaniako kontsulatxeko atearen aintzinean “visa” baten lortzeko. Nik ere nahiko nuke etxerat itzuli.

– Oya, erantzun zion amak, hemen da zure etxea. Zure aita eta ni biziki arranguratuak gara ikustean nola bizi zaren hemen. Ez duzu uste hobe dela zuretzat eskolarat gehiago ez joatea? Hola gehiago laguntzen ahalko gintuzun etxean eta saltegian. Jadanik aipatua diot Sevimen amari eta berak ere gauza beraren egitea pentsatzen du.”

Pixka bat gogoetatu ondoan, Oya ohartu zen egin zezakeen gauza hoberena zela. Nahiago zuen Alemaniarat itzuli diru pixka baten irabazteko eta gero bere biziaren egiteko, baina, bazekien burasoek ez zutela sekulan nahiko. Beraz, onartu zuen bere amaren proposamena, eta biharamunean berean, Osman eskolarat joan zen bere alaba zaha-

rrenaren izenaren kentzeko. Hala ere, ahizpa ttipiak kurtsoetara joaten segitu zuen berarentzat gauzak aise hobeki pasatzen baitziren. Izan ere, lehen astetik lagun berriak egin zituen eta, nahiz eta kurtsoetan ez denbora goxoa pasatu, gogotik joaten zen eskolarat bere adineko neskekin jostatzeko.

* * *

III. Kapitulua

Eguberrikari, Alemaniako usaien segitzeko, eta bereziki Oya eta Derya-ri plazer egiteko, Osmanek izai eder bat erosi zuen. Oroitzapen on anitzekin buruan, bi alabek izaia panpina bat balitz bezala apaindu zuten. Alemanian urtero garrantzia emaiten zioten besta horri, eta bi neskek izigarri apreziatu zuten horien burasoek usaia hori segitzea, nahiz eta musulman erlijioa jarraitu.

Alemaniatik ez zutenez horretarako edergailurik ekarri, merkatura joan ziren eta kolore guztietako zernahi gauza erosi zuten.

Bukatu zutelarik, izaia ez zen telebistan ikusten diren izai eder horietariko bat, baina, hala ere, itxura aski polita zuen.

Tradizioa segitzeko, goizean goiz jeiki ondoren, oren oso batez otoitzean aritu zen Oya-ren familia.

Ondotik, burasoek alabei animaleko ustekabe bat egin zieten erranez hainbeste gustuko zuten pesta hori familia osoarekin ospatuko zutela. Oya-k

berehala ulertu zuen hori guztia egiten zutela bi neskek bizi berria ahal bezainbat maita zezaten, eta egia erran sorpresa horrek bihotza berotu zien. Haatik, bitxia atzemaiten zuen hezurretaraino musulmana zuen amatxik kristau erlijioan sartzen zen pesta horretan parte hartzea.

Beraz, Oya-k ahizpari aspalditik erosia zion oparia eskaini eta, denak amatxiren etxerat joan ziren. Harat heltzerakoan jadanik kusi, otto eta ttantta guziak hor ziren. Denek jantzi ederrak eman zituzten, aldi batentzat kolore biziak zituztenak, eguneroko arropa grisak ez bezala. Oya-k ere, lehen aldikotz gustukoa zuen zangoetaraino heltzen zitzaion gona arroxka bat erosi zuen gaineko berde batekin. Ondotik denek bi neskei opari bana eskaini zieten. Oya-k egun hori pasa arau, geroz eta bitxia-goa aurkitzen zuen, alde batetik, denak etorri baitziren horientzat zentzurik ez zuen pesta batetarat, eta bestetik, denek opari bat eskaini baitzieten bi ahizpei. Baina erabaki zuen eguna ahal bezain ongi baliatzea, beraz, horri kasu egin gabe, besteak bezala mahainean jarri zen bazkaltzen hasteko. Amatxik aratxe saltsa bat prestatu zuen bixkotx desberdinekin desertarako.

Arratsean, gaua erortzen hasi zela Istanbuleko tenperaturak goxotuz, denak mahaitik altxatu ziren etxerat sartzeko gogoarekin. Oya, besteak bezala egiteko, berokia hartu eta zutitu zen.

Baina, bere amak besotik hartu zuen erranez Osmanek, amatxik eta berak gauza oso inportante baten jakinean eman behar zutela.

Harriturik, ez baitzekien batere zeri buruz mintzatuko ziren, neskak helduak segitu zituen. Banean izateko, laurak sukaldera joan ziren eta ama mintzatzen hasi zen:

“Maitea, honat ekarrarazi zaitugu zure emazte ezkondu etorkizunaz mintzatzeko.

– Ama, badakizu biziki ongi sobera gaztea naizela horretan pentsatzeko! Beharrik hamasei urte ditut, moztu zuen Oya-k.

– Aspalditik jakinean zara hemen neskak biziki gazte ezkontzen direla ttipitik hitzemanak diren mutikoekin, segitu zuen amak.

– Baina ni ez naiz hemengo neskak bezala, onartzen ez baduzue ere alemana naiz, eta nahi dut nire bizia ahal bezainbat baliatu! Berdin, norekin ezkonduko nintzateke, ez naiz inori hitzemanana ni!

Amatxik bere aho gaixtoarekin segidan erranzion:

– Justuki, horretarako gara hemen. Zu ttipidanik Ahmet kusiari hitzemanana zara eta berarekin ezkonduko zara. Hola da.”

Oya gorrotoz eta tristeziak beteriko sentimendu batek oldartu zuen bere baitan. Ordu batzuk lehenago, sorpresa ona entzuterakoan bihotza berotuzion supindarrak, orain gorputz osoa erretzen zion, sute bilakatu zelako. Bere bihotzetik abiatuz, zango-etako eri punttetaraino hedatzen senditu zuen suak ikaragarriko mina egiten zion. Sekulan ez zuen asmatuko Ahmet-ekin ezkondu beharko zenik.

Gainera, bere amatxiren kontra kexu zen hola, manera hotz batez aipatu baitzion gai hori. Hortaz

oharturik, Osmanek abilki amatxi kanporat ekarri zuen, ama-alabak goxoan mintzatzen utziz.

Hori zen istorio guztia, lehenik Oya-ri plazer egi-teko eta giro on baten sortzeko, egun polit hori prestatu zuten. Baina, denek bazekiten bukaeran zer gertatuko zen.

Bere burua pentze alai eta loretsu guzietan zoko batetan kokatua den putzu beltz eta sakonera eror-tzen zela senditu zuen. Aldi horretan familiak era-baki zuen Oya-ren botatzea. Hondoak hunkitzera-koan, Oya nigarrez hipaka hasi zen eta, bakardade osoan senditzen zen putzutik, bere amari galdegin zion abots ezti batez, bakarrik mintzo bazen beza-la:

“Ama, nola egiten ahal didazue holako gauza bat. Ez nauzue bada maite? Ahal duzuen guztia egi-ten duzue nire bizia hondatzeko!”

Ama gaixoa, entzutean holako hitzak bere alaba-ren ahotik ateratzen, bere aldi nigarrez hasi zen eta Oya bere besoetan hartuz segitu zuen:

“Otoi Oya, ez holako itsuskerietan pentsatu. Badakizu biziki ontsa zure ahizpa eta zu, ukan ditu-gun opari ederrenak zaretela, eta nehork ez luke dudan ezarri beharko zuengan dugun maitasuna. Nola buraso batzuek ez lituzkete beren alabak maitatzen ahal! Baina, hemen Turkian, honela pasatzen da ezkontza. Ikusiko duzu segidan Ahmet-ri usatuko zara zure buruan sartzen baduzu zure senarra dela.

– Baina ama, zertako Ahmet hautatu duzue, anaia bat bezala da niretzat!

– Justuki, horiek baldintza hoberenak dira familia baten fundatzeko. Ikusi zure aita eta ni, gu ere gure sortzetik hitzemanak ginen bata besteari.

– Baina, ez dut maite Ahmet. Ez da batere maitasun sendimendurik gure artean.

– Neska, horrek ez du axolarik. Maitasuna jinen da denborarekin. Funtsezkoa da esku onetan zarela. Otto Husnuk apartamendu eder bat eginen dizue bere etxean, eta badakizu Ahmet-ek kondu eder bat duela eta nahi duzuna eskaintzen ahalko dizula.

– Berdin, ez du balio zure planoen egitea, ez naiz sekulan harekin ezkonduko. Ez pentsatu nahi duzuen bezala manipula daitekeen bururik gabeko panpina bat naizela! Honat etorri ginenetik ohartu naiz familia honetan diren harremanak funtsezko hipokrisia batetan sartzen ahal direla, eta zuen tokian banintz, ahalge izanen nintzateke bere alaben konfiantza galdu duten eta deus balio ez duten buraso batzuen izaitea.”

Elkarrizketaren bukaera ekarri zuten azken hitz horiekin, Oya-k erakutsi zuen ez zuela sekulan egoera onartuko, eta berdin zitzaiola bere amari min egin bazion. Bere burasoek, berek erakutsi zioten norbaitek pertsona bat jotzen bazuen, honek oraindik azkarrago jo behar zuela bestearen kalmarazteko.

Arratsean Oya ohean etzan zen nigar sortekin begietan, eta kolpe handi batekin bihotzean.

Ondoko egunak ez ziren biziki alaiak izan Oya-arentzat. Eskola gelditu zuenetik, bere denbora

guztia pasatzen zuen Alemaniatik ekarritako diskoak entzuten, edo Francfort-en hartutako argazkiak begiratzen, oroitzapen onak xerkatuz. Bestenaz, ganbarako berinetik kanpora begiratzen egoitzen zen mirakuilu baten beha bazen bezala. Espero zuen egun batez norbait etorriko zela bere salbatzeko edo, hobeki erranda bere askatzeko.

Abenduaren hogeita zortzian, goiz batean Ahmet-k Oya deitu zuen arratsean berarekin zinemarat joateko emeiarekin. Telefonoz ari zirelarik, neska gaztearen amak dena entzuten zuenez, bere alaba bortxatu zuen proposamen horren onartzea.

Beraz, arratsean berean, bikotea filmaren ikustera joan zen. Bukaeran, nahiz eta filma osoan ez deus ulertu, Oya-k, Ahmet-i plazer egiteko errantzion denbora biziki goxoa pasatu zuela. Geroxeago, neskak galdegin zion:

“Etzi nahiko nuke Sevim-en ikustera joan? Espero dut ez duzula deus nire ideiaren kontra.”

Ahmet harrিতua zenez Oya-k bere baimena galdegitea, eta ez zuenez lehen arratsetik irudi txar bat ukan nahi, segidan baietza eman zion. Oya-ren helburua, hori galdegitean, ez zen batere erakustea onartu zuela bere emazte ezkondu egoera, baik eta bere kusiari sinestaraztea hala senditzen zela beranduago honen konfidantza lortzeko eta askatasun gehiagoren ukaiteko. Izan ere, bazekien honen kontra joanez, ez zuela deus irabaziko eta nahi bazuen bere egoera aldatu, izigarri abilki edo argiki ari izan beharko zuela.

Nahi zuena lortu zuen, Ahmet-k uste ukan baitzuen hori bien arteko harreman onen seinale bat zela.

Etxera heltzean, neskak segidan Sevim¹ deitu zuen berri onaren erraiteko. Azken honek abisatu zuen egunkarian irakurri zuenaren arabera, anitz turkiar gazte Alemaniarat itzultzea entseatzen zela, eta kontsuletxearen aintzinean lerrokatuak zirela baimen baten lortzeko gogoarekin.

Ez zutenez beste aterabiderik atzemaiten, bi lagunek erabaki zuten bi egunen buruan harat joatea eta beren aldi baimenaren lortzen entseatzea.

Beraz, erran bezala, arratsalde hastapenean Oya eta Sevim kontsulettxera joan ziren. Hango jende-metak ikaratu bazituen ere, aski fite pasatzea erdietsi zuten.

Maleruski, gizonak haien istoria entzun gabe ere, abisatu zituen bakarrik hamasei urte zituztenez, berentzat ezinezkoa izanen zela Alemaniarat itzultzea burasoen baimenik gabe.

Beraz, horien azken esperantza galdurik, etxerat sartu ziren.

Egun batzuk berantago, Oya eguberritan jakiniko berriaren ondotik oraindik nahaspilatua zela, postariak Alemaniatic etortzen zen gutun bat ekarri zuen haien etxerat.

Oya-ren bihotzeko taupadak azkartu ziren Peteren idazkera ezagutu zuelarik. Gutuna bere ize-nean zenez, neska gazteak pentsatu zuen askatasun guztia zuela burasoei erakutsi gabe honen irakurtzeko. Hona zer zion:

Francfort, abenduak 26,

Oya maitea,

Espero dut dena ongi pasatzen dela zuretzat herri urruti horretan.

Idazten dizut plazer handia egiten didan berri on baten erraiteko: Istanbulerat joanen naiz urtarrilaren lauean zure ondoan hamar egunez egoteko. Hastapenetik espero nuen eguberri zurekin pasatzea, baina, hegazkinekin arazo ttipi bat izan baita, ezin izan dut.

Horrez gain, hemen ez da gauza anitz aldatu zu joan zinenetik. Segur da ez dela aspaldian bezain ongi zu ez baitzaitugu ondoan. Connyrekin, usu, zurekin pasatu ditugun egun goxoetaz mintzatzen gara eta erraiten dizut on egiten duela oroitzapen onetan pentsatzeak.

Conny ez da lehen bezainbat ateratzen etxetik. Berarentzat ere zaila da zu ez ikustea gehiago. Jean ere, zu bere lagun hoberena zinen. Hala ere, orain pixka bat hobeki da.

Nire aldetik ere huts handi bat izan da hastapenean, baina, banekien berriz ikusiko zintudala, beraz, errazago izan da.

Jakin zazu Connyk ere nahiko zukeela zureganat etorri, baina, badaki arrazoin desberdinengatik bere burasoak ez direla sekulan ados izaneren.

Zuretzat ere biziki zaila izan behar da herri aldaketa hori. Espero dut hala ere familiarekin dena ongi pasatzen dela eta lagun berriak egin dituzula.

Barkatu baina horretan utzi behar zaitut.

Zure aitak hain segur gutuna irakurri nahiko duenez, espres beste gutun bat idatziko diot gutunazalean aurkituko duzuna, aski diozu hori emate.

Lehena gorde ezazu zoko batean nehork irakurri ahal ez izateko.

Muxu!

Peter

Hau irakurtzean Oya nigarrez hasi zen, alde batetik, triste zelako bere lagunengan pentsatzean, eta bestetik, uros zelako Peter berriz ikusiko zuelako. Lasterka, begiak idortu ondoren, bigarren gutuna hartu eta bere aitari eraman zion.

Egun batzuen buruan, azkenean Oya-k hainbeste itxoiten zuen urtarrilaren laua etorri zen. Biziki pozik zenez bere lagunaren ikustea, etxe guztia sekulan baino garbiago jarri zuen, eta bere burasoen baimena lortu ondoren, eguberritan jantzitako arropak berriz eman zituen Peteren errezibitzeko.

Oya-ren burasoak ere aski dotore jarri ziren, haientzat ere Peter pertsona inportante bat zelako.

Izan ere, hemeretzi urte zituen azken honek, turkiera eta alemana jakinki, eta negozioetan aski ona izanki, Oya-ren burasoak anitz lagundu zituen Francfort-en bizi zirelarik. Beraz, goizeko hamar orenetan denak aireportura joan ziren Peter-en hegazkinak beranta zuenez, familiak, bereziki Oya-rentzat luzeak izan ziren hiru oren oso itxoin zituzten.

Azkenean, alemana agertu zen jende-meta baten artetik.

“Adiskide, ongi etorri Turkiarat, erran zion Osmanek alemanez aski azkar ingurukoek entzun zezaten.

Gero bortxatuz bere burua itxura ahal bezain lasai baten ukaiteko, Oya-k gehitu zuen:

– Biziki kontent naiz zu hemen izatea Peter.”

Segidan, elkar besarkatu zuten eta oren erdi bat berantago, ongietorri eder baten ondotik, denak etxerat sartu ziren.

Harat heltzerakoan, familiak erabaki zuen ohe bat behituko zutela bi nesken logelan Peterek han lo egin ahal izateko.

Ondoko egunak, Istanbulen zenetik Oya pasatutako politenak izan ziren. Goizetik arrats, bere lagunarekin egoten zen. Arrats batez, biak logelan zirela, Oya-k bere sentimendu guztiak azaldu zizkion Peteri, egun batzuen buruan Ahmet-ekin ezkondu beharko zela barne. Une hori izigarri hunkigarria izan zen bientzat.

Nahiz eta azken berria jakiterakoan mutikoak bihotza urratua senditu, entseatu zen bere lagunaren kontsolatzea bazekielako harentzat oraindik zailagoa zela.

Maleruski, abiatzeko tenorea biziki fite etorri zenez, berriz ere abiatze triste baten ondotik, Peter berriz airatu zen Alemaniari buruz.

Hiru egun berantago, ezkontza-eguna zenez, Oya-ren amatxiren etxean animaleko mugimendu bat bazen. Etxeko andereak aginduak ematen zituen alde guztietarat, eta horretarako ez zenez bereziki ona, denak burzoratzen zituen.

Arrunt lasai egoten zen bakarra gehien kontsernatua zena zen, Oya-k erabaki baitzuen ez borrokatzea gehiago bere zorte txarraren kontra. Azkenean ohartu zen bere familiaren ondoan arrunt ahalgabe zela. Beraz, lehen aldikotz, protestatu gabe onartu zuen Turkiako arropa itsusi baten janztea egun berezi horretako amatxik espres erosi ziona. Besteentzat bestea egiteko parada bat zen egun hori, beretzat dolumen egun bat zen.

Erabakia zuen bere ohoretan egiten zuten omenaldiaren lorrintzea. Anitz gauzari pentsatzen zuen:

“Zertako espres eginen nuke kontent izatea nire baitan sekulan baino malerusago naizelarik? Berria erran zidaten egunetik jakinean nintzen gaurko eguna nola pasatuko zen, baina nonbait espero nuen gauzak konponduko zirela, edo amets gaizto horretarik iratzarriko nintzela!

Hara zertan bukatuko den nire bizia, edo hobeki erraiteko nire egiazko bizia. Egia erran, Turkiarat etorri garenetik gutti gora-behera bukatua da. Burasoek gako txarra eman didate nire etorkizuneko atearen idekitzeko eta betirako ate horren aintzinean kokatua geldituko naiz.

Banekien afera hau gaizki burutuko zela. Hastapenetik susmo txar bat banuen.”

Beti gauza berari pentsatzen zuen:

“Nolaz nire burasoek hori egiten ahal didate? Biziki ontsa badakite ez dudala Ahmet-rekin ezkondu nahi. Zertako bizia eman didate? Gero ahal bezainbat funditzeko?”

Bere familia ez zenez batere bere nahietaz arranguratzen, bere pentsatzeko moldea manera ahal bezain afrus batez erakutsi nahi zuen. Egia erran ez zekien besterik zer egin.

“Erna zaitez, gomitatuak heldu dira, oihukatu zion bere amak.”

Beraz, Oya garbigelan desagertu zen. Eternitate bat iduritu zitzaion denbora luze batez mirailaren aurrean gelditu zen. Bere baitan huts bukaezin bat

eta tristezia handi bat senditzen zituen neska bat ikusten zuen. Bere begiek ez zuten gehiago dirdirarik isladatzen, hilak ziren. Bisaian ez zuen gehiago espresiorik agertzen uzten. Gorputzean animaleko gorroto bat igotzen senditu zuen. Gogoetatu gabe, aitzur pare bat hartu eta bere ile luze eta kizkurretako metxa bat moztu zuen. Gero, beste bat, eta beste bat. Bukaeran, ile meta haundi bat bazen lurrean.

Ondotik, bere arropa hartu eta, leku desberdinetan zatiak moztu zituen. Bere burasoek galdegin ziotenez pixka bat makiatzea, ezpainetako lodi bat hartu eta animaleko aho bat marraztu zuen bere bisaian. Gero, bere aitaren bizar-makinarekin, bekainak moztu eta horien tokian beltz koloreko arkatz batekin bi marra fin-finak marraztu zituen. Momentu horretan senditzen zuen barneko minak izaera inkonziente batetan sarrarazia zuen.

“Zoin ederra den zuen Oya!” pentsatu zuen.

Besteek deitzen zutenez, poliki-poliki salonerat sartu zen. Kolpez, denak isildu ziren Oya harriturik begiratzen zutela mamu bat bazen bezala.

Lasaiki, neskak hitz batzu erran zituen:

“Egun on deneri, eta ongi etorri nire ezkontzatarat!”

Nehork ez zuen erantzun.

Gero, Oya bere tokian jarri zen, Sevim eta Ahmet-en artean. Jendeak berriz hizketan hasiak ziren. Iduriz Ahmet-ri berdin zitzaion Oya hola izaitea zeren eta hau ere bere aitaren lagun batekin mintzo zen.

“Burua galdu duzu, ufatu zion Sevimek, afrusa zira!

– Berdin zait, erantzun zion. Norentzat polita izan beharko nindaike?

Eta horretan isildu zen, zeremonia hasiko baitzen.

Arratsean, gomitatu guztiak etxerat sartuak zirela deus erran gabe Oya oherat joan zen eta bere eraztuna ondoko mahainean pausatu ondoren lokartu zen, Peterek eskainiako lepokoaren hiru letrak eskuan azkarki tinkatuz. Ametsak bakarrik gelditzen zitzaizkion, hamasei urteko neska arrunt baten bizia bizitzeko. Nehork ez zion sekulan hori ebasten ahalko:

Conny maitea,

Aspalditik ez dizut nire berririk eman. Hemen naitzenetik anitz arazo ukan ditut baina gauzak arras aldatu dira bederatziz hilabetez. Idazten dizut zure abisatzeko ezkondu naizela ttipidanik hitzeman nintzen Ahmet nire lehengusuarekin.

Hain segur, pentsatuko duzu erotu naizela, eta egia erran ez nintzen urrun. Herri honetan sartuz geroztik ez gara berriz ateratzen. Sevim, nire lagunak eta nik ahal genuen guztia egin dugu etxerat sartzeko, baina, ezinezkoa da. Hemen kokatuak gara, txori gaizoak kioletan preso atxikitzen diren bezala. Hastapenean, horien gisa oiher egin dut, askatasun oiheraren bila nintzen. Baina orain ulertua dut zertako momentu baten buruan kioletako txoriak isiltzen diren, horiek ere ohartzeko ez dutela nehoiz hartatik urratua izan diren etxea berriz ikusiko.

Beraz, ohartu naiz ez nuela deus egiten ahal ezkontza onartu baizik.

Ez nintzenez gehiago eskolarat joaten, ez nuen beste hauturik ez banuen nire bizia pasatu nahi familia-rentzat garbiketak egiten.

Nire kusia hobeki ezagutuz, ohartu naiz izigarri gisakoa zela. Segur ez dela nire biziko maitasuna, baina hori existitzen ote da? Bederen, segur naiz berak ahal duena egingen duela ni uros jartzeko. Berdin hemen naizenetik entseatzen naiz onartzen ttipidanik bihotz guztiz sinesten nituen ametsak ez direla sekulan errealtate bihurtuko.

Jainkoak hori nahi izan du, eta ez dut deus egiten ahal horren kontra.

Ahmet-ekin apartemendu xarmant bat ukanen dugu bistarekin itsasoari buruz.

Hainbeste dolu dut zu ez nire ondoan ukanik ezkontza egunean!

Espero dut fite bisita bat egingen didazula. Otoi ez nazazula ahantz, beti nire bizitzako eguzki izpia egonen zara eta zure presentzia sendituko dudano nire bihotza ez da itzaliko.

Bazeneki zombat Alemaniaz eta zutaz pentsatzen dudana.

Laster arte

Oya